

Saskibaloia Kirol Teknikari Ikastaroa (Erdi Mailako Hasierako Zikloa): 2020 - 21



Ikastaro hau **araubide bereziko kirol ikasketen barne** dago. Ikasketa horiek hezkuntza sisteman sartuta daude. Beraz, balio akademikoa dute. Bi mailatan egituratzen dira: erdi maila eta goi maila. Saskibaloiko Kirol Teknikariaren titulua erdi mailakoa da eta bi ziklo ditu: hasierako zikloa eta amaierako zikloa.

Erdi Mailako Hasierako Zikloko ikastaro hau gaituz gero, ***Saskibaloia Kirol Teknikariaren Hasierako Zikloko Ziurtagiria*** lortuko da.

Ikastaro honetako bloke espezifikoak egiteari begira, Nafarroako Kirolaren Eskolak **Nafarroako Saskibaloia Federazioaren** laguntza izango du.

Sartzeko betebeharrak:

Betebehar orokorrak:

Izangaiek baldintza hauetako bat frogatu beharko dute:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gradua izatea (edo baliokidea).
- Goi Mailako Titulazioa izatea.
- Erdi mailako kirol irakaskuntzetan sartzeko proba gaituz izana. Proba hau egiteko gutxienezko adina 17 urte izan da, urte naturalean beteak.
- Erdi mailako lanbide-heziketan sartzeko proba gaituz izana.

Betebehar espezifikoak:

- Kirol merezimendua frogatzea, federazioko edozein lehiaketa kategoriatan, infantil kategoriatik hasi eta absoluturaino, gutxienez denboraldi batean lehiatu izana. Espainiako Saskibaloia Federazioak kirol meritu hau ziurtatu beharko du.

- Ez dituzte sartzeko probak egin beharko hurrengo izangaiak:
 - o 971/2007 E.D-k aipatutako Saskibaloiko maila handiko kirolariak.
 - o Nafarroako araudian aitortutako errendimendu handiko kirolariak edo saskibaloiko modalitateko baliokideak.
 - o Espainiako Saskibaloiko Federazioak Espainia azken bi urteetan ordezkatzeko hautatutako kirolariak, kategoria absolutuko nazioarteko lehiaketa ofizial batean gutxienez.

Prestakuntza plana

Bloke komuna:

MODULUAK	ORDUAK
	60
Kirol portaeraren oinarriak	20
Lehen laguntzak	30
Jarduera fisiko egokitua eta ezgaitasuna	5
Kirol antolakuntza	5

Bloke espezifikoak:

MODULUAK	ORDUAK
	265
Jokalariaren prestakuntza hasierako etapetan	40
Taldearen zuzendaritza hasierako etapetan	20
Saskibaloiko irakaskuntza	35
Eraso eta defentsa taktika hasierako etapetan	20
Formakuntza praktikoa	150

Ikastaroaren garapena

- Ikastaroaren aurkezpena: 2020ko abenduaren 21ean

Bloke komuna

- Datak: 2021eko martxoaren 5etik, apirilaren 25era.
- Aurrez aurreko azterketa: 2021eko maiatzaren 8a.
- Modalitatea: Ez aurrez aurrekoa (Gela birtuala).

Bloke espezifikoak:

- Datak:
 - o 2020ko abenduaren 26tik, 2021eko martxoaren 7ra.
 - o 2021eko apirilaren 26tik, abuztuaren 31era.

- Aurrez aurreko azterketak: 2021eko otsailaren 19an eta ekainaren 30ean.
- Modalitatea: Erdi aurrez aurrekoa.
- Aurrez aurreko saioak: Orokorrean, ostiraletan, larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan izango dira.
- Prestakuntza praktikoa (150 ordu): 2021eko maiatzaren 15etik, abenduaren 20ra.

Bi blokeetako egutegiak erantsi dira.

Onartzeko prozedura:

Aurre-inskripzioa

- Ikastaroan izena emateko, izangaiek eskabide-orria bete eta Nafarroako Kirolaren Eskolako idazkaritzan edo formacion@fundacionmiguelindurain.com helbide elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute ondorengo dokumentazioa erantsiz:
- NANaren edo Pasaportearen fotokopia.
- DBHko graduatu tituluaren, baliokidearen edo goi mailako titulazioaren fotokopia.
- Kirol merezimenduaren egiaztagiria edo sarrera probatik salbuetsia izatearena.

Aurre-inskripzioa egiteko epea: 2020ko azaroaren 30etik abenduaren 11ra.

Aurre-inskripzioa egiteko epea amaitu ondoren, onartutakoen zerrenda egingo da.

Matrikulazioa:

Onartuen zerrenda argitaratutakoan, matrikula egingen da ikasturtean, kuota ordainduta, Nafarroako Kirolaren Eskolak adieraziko dituen jarraibideen arabera.

Matrikulatzeko epea: Abenduaren 15etik 18ra.

Matrikulazio-kuota:

Matrikulazio-kuota: 350 €

Erreferentziazko araubidea:

- 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol irakaskuntza kudeaketa orokorra ezartzen duena.
- 99/2017 Foru Dekretua, azaroaren 8koa, araubide bereziko kirol ikasketen barrenean Saskibaloiko kirol teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitatean.
- 43/2012 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa araubide bereziko kirol irakaskuntzaren erdi mailako hasierako zikloko bloke komunaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan. Aldatuta 2015eko ekainaren 12ko 58/2015 Foru Aginduaren bitartez.
- 90/2018 Ebazpena, otsailaren 23koa, non Unibertsitateetako eta Hezkuntza Baliabideetako Zuzendari Nagusiak baimena ematen dio Nafarroako Kirol Eskolari Saskibaloiko kirol irakaskuntzak emateko, baita 1363/2007 Errege Dekretuak, urriaren 24koak, 1. xedapen iragangorrek zehazten dituen erregimen bereziko kirol irakaskuntzak eta kirol heziketako aktibitateak ere.

Informazioa / Matrikulazioa:

Nafarroako Kirol Eskola (NakirolE)

Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (Larrabide Estadioa)

Zangoza Kaleko 34.a.

31005 Iruñea

Tfnos.: 848 431583/84

E-mail: formacion@fundacionmiguelindurain.com